



Txostenak eta autoebaluazioa egiteko txantiloia

Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak (BAP)



LABORAL
kutxa

1. printzipioa: **Lerrokatzea**



Gure negozio-estrategia lerrokatuko dugu koherentea izan dadin eta pertsonen beharrak eta gizartearen helburuak lortzen lagun dezan, Garapen Jasangarrirako Helburuetan, Klimari buruzko Parisko Akordioan eta nazio- zein eskualde-mailako esparru nabarmenetan adierazitakoari jarraikiz.

Negozio-eredua

Deskribatu (goi-maila) zure bankuaren negozio-eredua, eta artatzen diren bezero-segmentu nagusiak, eskaintzen diren produktu- eta zerbitzu-motak eta bankuak lan egiten duen edo produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituen eremu geografiko nagusietako jardura-sektore eta -mota nagusiak. Kuantifikatu informazioa; adibidez, zure bankuko zorroaren banaketa (%-a) azalduta, geografari eta segmentuei dagokienez (hau da, balantzeko kontu-sailaren eta/edo balantzetik kanpoko kontu-sailaren arabera) edo artatutako bezero-kopurua emanaz.

LABORAL Kutxa kreditu-kooperatibak banku-zerbitzu komertzialak eta enpresei bideratutakoak eskaintzen ditu Espainiako iparraldean, batez ere Euskadin eta Nafarroan. Partikularrak, autonomoak, negozioak, enpresa txiki eta ertainak, eta enpresa handiak dira segmentu nagusiak, eta horien artean daude kooperatibak (Mondragonekoak ere bai), entitatea sortu zutenak.

Nabarmentzekoa da haren hipoteka-lana, bai eta enpresa txiki eta ertainen finantzaketa ere. Era berean, aseguru-zerbitzuak eta aholkatutako inbertsioekin loturikoak ere eskaintzen dizkie bezeroei, Diruzaintzaren eremutik inbertsio propioak egiteaz gain.

Galdera horiei erantzuteko, 2022ko Jasangarritasun Txostena eta Informazio ez-finantzarioaren egoera-orria erabili ditugu, biak ere GRI estandarren arabera eta AENOREk ikuskatuak.

[2022ko Jasangarritasun Txostena](#)
8. or.

1. printzipioa: **Lerrokatzea**

Estrategia lerrokatzea

Zure estrategia korporatiboak identifikatzen eta islatzen du jasangarritasuna bankuaren lehentasun estrategiko gisa?

Bai

Azaldu zure bankua nola lerrokatu den, eta/edo bere estrategia nola lerrokatu nahi duen, koherentea izan dadin Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJHekin), Klimari buruzko Parisko Akordioarekin eta nazio- zein eskualde-mailako esparru nabarmenekin.

Zure bankuak aipatzen du jasangarritasunari buruzko arauzko informazio-esparru edo -betekizun hauetakoren bat, bere lehentasun estrategikoetan edo horiek aplikatzeko politiketan?

Nazio Batuen Mundu Ituna

Ingurumen-arriskuen ebaluazioei buruzko txostenak (adibidez, klima-arriskuei buruzkoak) aurkeztearen arloan aplikagarria den edozein arauzko betekizun. Zehaztu zeintzuk: TCFD

1. printzipioa: **Lerrokatzea**

Estrategia lerrokatzea

LABORAL Kutxa kreditu-kooperatiba bat da. Beraz, gizarte-ekonomiakoa da, eta lan egiten duen eremuko aurrerapen ekonomiko eta soziala sustatzeko sortu zen. Ildo horretan, jasangarritasuna gure strategiaren osagaietako bat izan da betidanik. Horren erakusgarri nagusia da urteko mozkinen % 25 gizarteari itzultzen zaiola.

LABORAL Kutxak, bere jatorria, jarduera eta ibilbidea kontuan hartuta, 5., 8., 9., 10. eta 17. GJHak lehenesten ditu.

LABORAL Kutxaren 2020-2022rako hausnarketa estrategiko orokorraren barruan, Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak (BAPak) txertatu ziren, jarduera eredu jasangarriago baterantz eboluzionatzeko gida gisa. 2022an, estrategia hori eguneratu egin da hurrengo bi urteetarako (2023-2024), jasangarritasuna elementu nagusietako bat dela eta BAPak gida hartuta.

2022an, LABORAL Kutxa Taldearen Jasangarritasun Politika onartu da, baita haren gobernantza eta erantzukizunak ere. Horiek zehazteko, kontuan hartu ziren bai GJHak eta BAPak, bai gure kooperatiba-ezaugarriak.

2022an, bigarren txosten bat egin da, TCFDren (Task Force On Climate-related Financial Disclosures) gomendioei jarraituz. 2021eko lehen hurbilketaren ondoren, txosten horrek sakonki erakusten du jasangarritasunaren eta klima-aldaketaren arriskuen integrazioa, bai eta azken urtean egindako aurrerapenak ere.

2023rako Jasangarritasunaren Gestio Planean zehaztuta dagoenez, Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak ezartzen jarraituko dugu, eta zorroa deskarbonizatzeko helburuak finkatzeko aukera baloratuko dugu.

Esan bezala, finantzaketa ematea da LABORAL Kutxaren jarduera nagusia. Beraz, finantzaketa hori gizartean edo ingurumenean inpaktu positiboa izan dezaketen helburuetarantz bideratzea da gizarteari zein ingurumenari laguntzeko eta gure estrategia Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJHekin) eta Parisko Akordioarekin lerrokatzeko modurik onena. Ildo horretan, 2022an finantzaketa jasangarriko esparru bat landu da, eta, bertan, taxonomia-erregelamendua, ICMA irizpideak eta GJHak kontuan hartuta, ingurumen- eta gizarte-finantzaketatzat zer hartzen den azaldu da.

Esparru hori erreferentziatzat hartuta, merkataritza-eremuan 160 M€ bideratu dira ingurumen-finantzaketara, eta 788 M€ gizarte-finantzaketara. Ingurumen-finantzaketan zenbait kontzeptu sartzen dira, hala nola energia berriztagarriak, mugikortasun jasangarria, biodibertsitatea, nekazaritza jasangarria edo ekonomia zirkularra, guztiak Parisko Akordioarekin lerrokatuta. Bestalde, gizarte-finantzaketan hainbat partida sartzen dira, hala nola hezkuntza, osasuna, kultura, gizarteratzea eta abar. Era berean, ETE-en, mikroenpresen eta autonomoen finantzaketa ere sartzen da, horiek sortzen baitute enplegurik gehien Espainian; bai eta

2022ko
Jasangarritasun
Txostena.
37. eta 50. or.
TCFD

1. printzipioa: **Lerrokatzea**

Estrategia lerrokatzea

gizarte-ekonomiako erakundeena, hala nola elkarteena, fundazioena edo kooperatibena, eta estatuz azpiko administrazio publikoena ere, non gastu gehienak zerbitzu publikoak ematera bideratzen diren, hala nola hezkuntza eta osasuna.

Hipotekaren arloari dagokionez, LABORAL Kutxa bere inguruneko bi erronka garrantzitsuetan laguntzen saiatzen da bere jardura nagusiaren bidez. Alde batetik, aipatzekoa da Espainian berotegi-efektuko gas-isurpenen % 40 inguru bizitegi-sektoretik datorrela. Ildo horretan, LABORAL Kutxak etxebizitza berdeari dagozkion 1.376 M € ditu bere balantzean; hau da, energetikoki efizienteak diren eta CO₂-kantitate txikiak isurtzen dituzten etxebizitza edo eraikinenak.

Bestalde, gazteek lehen etxebizitza eskuratzeko duten zailtasuna da Espainiako arazorik handienetakoa. Horrekin lotuta, LABORAL Kutxak 900 M € eman ditu etxebizitza merke eta babestuak finantzatzeko.

Ingurumen- eta gizarte-finantzaketaren bolumena handitzeko, LABORAL Kutxa produktu jasangarrien sorta bat ari da prestatzen. 2022an, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitze jasangarrirako mailegua eta autokontsumo energetikorako eta enpresentzako eguzki-plaketarako mailegua garatu dira. Bestalde, merkataritza-eremutik, beste erakunde edo laguntza-programa batzuekin lankidetzan ere aritzen da, hala nola Next Generation EU funtsekin, Europako Inbertsio Funtzarekin (FEIrekin) edo Enplegurako eta Gizarte Berrikuntzarako EBren Programarekin (EaSIrekin), helburu bera baitute.

Inbertitzeko aholkularitza-zerbitzuaren esparruan, 2022an LABORAL Kutxak eskainitako inbertsio-funtsik gehienek jasangarritasun-irizpideak dituzte. Zehazki, inbertsio-funtsen % 66k ezaugarri jasangarri ugari dituzte.

Era berean, 2022an **Konpromiso Funtsa** merkaturatu zen berriro. Bertan, partaideek erabakitzen dute erakundeak lagatako gestio-komisioen zati bat zein gobernuz kanpoko erakunderi eman.

Diruzaintzako inbertsio propioei dagokienez, inbertsio ia osoa Espainiako zor publikoan dago gordailututa.

Azkenik, Lagun Arok, LABORAL Kutxa taldearen aseguru-etxeak, finantza-erakundearen estrategian, politiketan eta gobernantzan hartzen du parte. Jasangarritasuna kudeatzeko plan propioa eta lerrokatua du, eta urratsak egiten ari da jasangarritasun-arriskuak integratzen eta bere inpaktua hobetzen, aseguru etiko eta jasangarrien katalogo bat garatzearen bidez.

2022ko
Jasangarritasun
Txostena.
37. eta 50. or.
TCFD

2. printzipioa: **Inpaktua eta helburuak finkatzea**



Gure inpaktu positiboak etengabe areagotuko ditugu, eta, aldi berean, inpaktu negatiboak murriztu eta gure jardueren, produktuen eta zerbitzuen ondorioz pertsonentzat eta ingurumenarentzat sortzen diren arriskuak kudeatu. Horretarako, helburuak ezarri eta argitaratuko ditugu inpakturik garrantzitsuenak izan daitezkeen eremuetarako.

2.1. Inpaktu-azterketa (1. gako-urratsa)

Egiaztatu zure bankuak bere zorro(ar)en inpaktu-azterketa egin duela inpaktu-eremurik nabarmenenak identifikatzeko eta lehentasunezko arloak zehazteko, helburuak ezartze aldera. Inpaktu-azterketa aldian behin eguneratu beharko da¹, eta baldintza/elementu hauek bete beharko ditu (a-d)²:

- a) **Irismena:** Zein da zure bankuaren inpaktu-azterketaren irismena? Azaldu bankuaren zein negozio-eremu nagusi eta bankuak lan egiten duen geografia-eremuetako zer produktu eta zerbitzu (1.1 atalean deskribatzen den bezala) hartu diren kontuan inpaktu-azterketan. Azaldu, halaber, zer arlo ez diren oraindik sartu eta zergatik.

2022an egin dugu lehen azterketa, NBIP FEk plazaratutako tresna erabilita. Bankuetako zorroen inpaktua aztertze dago diseinatuta tresna hori, eta txikizkako eta handizkako zorroen inpaktuak aztertze baliu du.

Egindako inpaktu-azterketak baldintza hauek betetzen ditu:

- Bankuaren negozio-eremu nagusiak hartu ditu kontuan, aseguruaren negozioa eta aktiboaren gestioa izan ezik, eta jarduera-eremu geografiko osoari erreparatu dio.
- LABORAL Kutxaren negozioaren barruan, hipoteka-negozioarekiko esposizioa nabarmentzen da batez ere.

[2022ko Jasangarritasun Txostena.](#)
8. eta 32. or.

¹ Horrek esan nahi du, aurretik hasierako inpaktu-azterketa egin denean, informazioa eguneratu egin beharko dela, eta, beraz, denborarekin irismena handitu egin beharko dela, eta inpaktu-azterketaren kalitatea hobetu.

² Informazio gehiago aurki daiteke hemen: [Inpaktu-azterketari eta helburuak finkatzeari buruzko gida interaktiboan.](#)

2. printzipioa: **Inpaktua eta helburuak finkatzea**

2.1. Inpaktu-azterketa (1. gako-urratsa)

Analisia egin ondoren, aztertu dugu ea LABORAL Kutxak nola lagun dezakeen inpaktu positiboko eremuak sustatzen eta, aldi berean, inpaktu negatiboak murrizten. Horretarako, tresnak berak proposatutako adierazleak aukeratu ditugu. Gainera, beste adierazle batzuk ere hartu ditugu, tresnak berak emandakoak ez izan arren, LABORAL Kutxarentzat oso interesgarriak direlakoan.

Azkenik, 2022an, materialtasun bikoitzeko azterketa bat egin dugu, eta interes-taldeei galdetu diegu zer iritzi duten LABORAL Kutxaren jarduerak gizartearen, ingurumenaren eta gobernu korporatiboaren alderdietan duen inpaktuari buruz. Materialtasun bikoitzeko azterketa hori 2022ko Jasangarritasun Txostenari erantsi zaio.

2022ko Jasangarritasun Txostena.
8. eta 32. or.

b) Zorroaren osaera: Kontuan hartu du zure bankuak bere zorroaren osaera (%-tan) azterketan? Adierazi zorroaren osaera proportzionala, globalki eta eremu geografikoaren arabera:

i) sektorearen eta industriaren arabera³, enpresen, korporazioen eta inbertsio-bankuen zorroetarako (hau da, sektorearen araberako esposizioa edo industriaren banakapena ehunekotan)

eta/edo

ii) produktuen eta zerbitzuen arabera, eta bezero-motaren arabera, kontsumoko eta txikizkako banku-zorroetarako.

³ Bereziki garrantzitsuak dira hemen hainbat inpaktu-eremuri loturiko «gako-sektoreak», hau da, inpaktu positibo eta negatibo bereziki handiak dituzten sektoreak.

2. printzipioa: **Inpaktua eta helburuak finkatzea**

2.1. Inpaktu-azterketa (1. gako-urratsa)

LABORAL Kutxak lau negozio-ildo hartzen ditu barne, nagusiki, bere lan-jardueran:

1. partikularren banka
2. enpresen banka (gehienak ETEak)
3. aseguruak
4. aktiboan kudeaketa

Hala ere, partikularren eta enpresen banku-negozioetan izandako inpaktua soilik aztertzeke aukera ematen du erabilitako tresnak, eta, beraz, bi ildo horietan zentratu da inpaktu-azterketa, Entitatearen negozio osoaren % 64 eta % 12 baitira, hurrenez hurren.

Partikularren banka-negozioari dagokionez, bezero-kopuru osoa adierazi da: 1.059.061. Gainera, banku-produkturik ohikoenak zehaztu dira. Alde batetik, kontu korranteak eta ordainbideak dituzten bezeroak daude (hau da, bezeroen % 100), eta pasiboko produktuen barruan sartuko genituzke. Bestalde, aktiboari dagokionez, LABORAL Kutxako bezeroen % 14k hipoteka bat du, eta % 6k kontsumorako maileguak.

Enpresen bankari dagokionez, LABORAL Kutxak 1.671.489.000 €-ko maileguak ditu. Zenbateko horretatik, % 27 industriara bideratzen da, % 17 merkataritzara eta % 9 etxebizitzak eraikitzen. Sektore horiek dira finantzatuenak.

Premia nagusiak identifikatzeko hautaturiko lurraldea Espainiako estatua izan da; izan ere, LABORAL Kutxak herrialde horretan baino ez du jarduten. Horren barruan, negozioaren zatirik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan biltzen da.

2022ko Jasangarritasun Txostena.
32. or.

2. printzipioa: **Inpaktua eta helburuak finkatzea**

2.1. Inpaktu-azterketa (1. gako-urratsa)

- c) Testuingurua.** Zein dira garapen jasangarriarekin lotutako erronka eta lehentasun nagusiak zure bankuak eta/edo bezeroek jarduten duten herrialde/eskualde nagusietan?⁴ Azaldu nola hartu diren kontuan, inpaktu-azterketaren elementu horri buruzko informazioa emateko lankidetzan aritu diren alderdi interesdunak barne hartuta.

Jarduten dugun gizartearen premia nagusiak enplegu duin bat eta etxebizitza bat lortzea dira —kontu zaila, gazteentzat bereziki—. Gainera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna oraindik ere aurrerapausoak eskatzen dituen gaia da.

Era berean, zehatzagoak izanda, Nafarroako eta Arabako herri batzuek pairatzen duten despopulazioa da beste arazo bat; izan ere, herri horiek ez dute lan-aukerarik, azpiegiturarik eta zerbitzurik.

Klima-larrialdiak eraginak ditu, halaber, karbono-aztarnan. Enpresak, mugikortasuna eta etxebizitzak dira isurpenen eragile nagusiak. Azken atal horretan, bereziki negatiboa da etxebizitzaren inpaktua, haien batez besteko adina altua baita, eta energia-efizientzia, txikia.

2022ko Jasangarritasun Txostena.
32. or.

⁴ Zorro oso dibertsifikatuak eta nazioartekoak dituzten bankuen kasuan, lehentasun globalak ere kontuan har litezke.

2. printzipioa: **Inpaktua eta helburuak finkatzea**

2.1. Inpaktu-azterketa (1. gako-urratsa)

Inpaktu-azterketaren lehen 3 elementu horietan oinarrituta, inpaktu positiboko eta negatiboko zer arlo identifikatu ditu zure bankuak? Zer inpaktu-eremu nabarmen lehenetsi dituzu (gutxienez bi) helburuak finkatzeko estrategiari jarraitzeko (ikus 2.2)?

LABORAL Kutxaren negozio-ildo horiek ebaluatu eta Espainiako behar espezifikoei lotu ondoren, Entitateak inpaktu nabarmena izan dezakeen zenbait arlo eman ditu tresnak. Eremu horietatik, hiru garrantzitsuenak aukeratu dira, inpakturik handiena lortzeko aukera ematen duten horietan jartzeko arreta.

LABORAL Kutxaren kasuan, ondorio hauek atera dira:

- Entitateak inpaktu positiboa du bai enpleguaren arloan eta bai ekonomia inklusibo eta osasungarrien arloan.
- Entitateak inpaktu positiboa du etxebizitza eskuratzeko aukeran.
- Entitateak inpaktu negatiboa du kliman.

Enpleguari dagokionez, kontuan izanik enplegu gehiena enpresa txiki eta ertainek (ETEak) sortzen dutela, inpaktu positiboa du LABORAL Kutxak. Izan ere, finantzaketaren bidez, lanpostuak sortzen jarraitu ahal izateko beharrezkoak diren tresnak ematen dizkie. Hala, 2022an, LABORAL Kutxak 60.000 bat autonomo, mikroenpresa eta ETE babestu zituen finantzaketaren bidez.

Gainera, Gaztenpresa fundazioaren bidez, LABORAL Kutxak aktiboki sustatzen du enpresa eta negozio berrien sorrera. Ekintzaileei beren enpresak eta negozioak sortzen laguntzen dien ekimena da Gaztenpresa. Ibilbide luzeko proiektua da, eta, 2022an, 314 negozio berri sortzen lagundu zuen; horiek 637 pertsonari (erdiak, emakumeak) eman zieten lana.

*Gaztenpresaren
2022ko Txostena.
2022ko Jasangarritasun
Txostena.
72. or.*

2. printzipioa: **Inpaktua eta helburuak finkatzea**

2.1. Inpaktu-azterketa (1. gako-urratsa)

Era berean, komeni da gogoraraztea LABORAL Kutxak laguntza berezia ematen diela kooperatibei, finantzaketaren zein Mondragonen bidez. Mondragonek LABORAL Kutxaren irabazien zati handi bat jasotzen du, eta irabazi horiek helburu hauetara bideratzen dira: arazoak dituzten kooperatibei laguntzera, Mondragonen ikerketa- eta hezkuntza-erakundeak finantzatzera (unibertsitatea barne), proiektu berriak abiaraztera eta kooperatiben hazkundea bultzatzera. Kooperatiben eta enpresa arrunten artean, desberdintasun hauek dira nagusi: kooperatibek pertsonak jartzen dituzte kapitalaren aurretik, emaitzak modu ekitatiboan banatzen dituzte langileen artean eta erabakiak demokratikoki hartzen dituzte. Beraz, LABORAL Kutxak, enpleguaren eta aberastasunaren sorreran eragiteaz gain, kalitatezko enplegua sortzen eta aberastasuna banatzen laguntzen du.

Bestalde, Nafarroako eta Arabako lurraldeei erreparatzen badiegu, LABORAL Kutxak 15 bulego ditu lurralde horietako 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan. Horietan, finantza-zerbitzuak eskaintzen dizkie eta 136 M€ ditu aktibotan; horrek ingurunea eta ekonomia aktibatzeke balio du, eta despulazioa moteltzeko.

Klima-larrialdiari eta karbono-aztarnari dagokienez, kontuan hartuta enpresak eta etxebizitzak direla CO₂-isurpenen iturri nagusietako bi, inpaktu negatiboa dakar bi elementu horien finantzaketari laguntzeak. Horregatik, beste atal batzuetan deskribatzen den bezala, finantzaketa berdeko katalogo bat ari gara garatzen.

LABORAL Kutxak inpaktu positiboa du konbergentzia ekonomikoan, kalitatezko enplegu duina sortzen laguntzen duelako eta pertsoneri eta familiei etxebizitzak erosten laguntzen dielako. Aitzitik, ingurumenaren atalean, inpaktua ez da positiboa, bi arlo horiei ematen dien babesak CO₂-isurpenak eragiten baititu.

Bi inpaktu-eremuen lehenespenari dagokionez, inpaktu positiboko eremuak lehenestea erabaki da:

- **Kalitatezko enplegua sortzea.**
- **Etxebizitzak erosten laguntzea.**

Inpaktu-azterketaren emaitzak, bai eta inpaktu-eremuen lehenespena eta proposatutako adierazleak ere, Jasangarritasun Batzordearen 2022-10-24ko bilkuran aurkeztu ziren. Eztabaida baten ondoren, onartu egin zituzten.

[Gaztenpresaren
2022ko Txostena.](#)
[2022ko Jasangarritasun
Txostena.](#)
72. or.

2. printzipioa: **Inpaktua eta helburuak finkatzea**

2.1. Inpaktu-azterketa (1. gako-urratsa)

- d) Emaitzak neurtzea**, honako hauei dagokienez (lehentasunezko bi inpaktu-arlo gutxienez). Identifikatu du zure bankuak zer sektore eta industria eta finantzatutako edo inbertsioak egindako zer bezero-mota ari diren eragiten inpaktu positibo edo negatiborik handienak? Azaldu nola ebaluatu duzun horien errendimendua, zure bankuaren testuinguruan aplikatzen diren inpaktu esanguratsuko arloekin lotutako adierazle egokiak erabiliz.

Jarraian, LABORAL Kutxak inpaktuaren intentsitatea ebaluatzeko hartutako ikuspegia azalduko da.

Kalitatezko enplegua sortzeari dagokionez, 3 hauek dira LABORAL Kutxak eragindako inpaktu positiboaren arrazoiak:

1. Gehienbat enpresa txiki eta ertainei zuzentzen die finantzaketa, aintzat hartuta horiek sortzen dutela lanposturik gehien.
2. Gaztenpresa fundazioa, ideia bat duten ekintzaileei aholkularitza, laguntza eta finantzaketa emateaz arduratzen dena.
3. LABORAL Kutxak arreta berezia jartzen du enpresa kooperatiboetan, gizarte-ekonomiaren parte baitira eta enplegu duina sortzen laguntzen baitute, finantzaketa propioaren bidez eta Mondragon Korporazioak emandako laguntzaren bitartez.

Etxebizitzak erosteko laguntzari dagokionez, LABORAL Kutxaren negozio nagusia hipotekak ematea da. Ildo horretatik, hobetu beharreko arloa da zailtasunik handienak dituztenei (gazte, emakume eta etorkinei) etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago ematea.

2. printzipioa: **Inpaktua eta helburuak finkatzea**

2.1. Inpaktu-azterketa (1. gako-urratsa)

Autoebaluazioaren laburpena

Inpaktu-azterketaren osagai hauetatik zein osatu ditu zure bankuak inpaktu positibo eta negatiborik garrantzitsuenak (potentzialak) dituzten eremuak identifikatzeko?⁵

Irismena:	<input checked="" type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Aribidean	<input type="checkbox"/> Ez
Zorroaren osaera:	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Aribidean	<input checked="" type="checkbox"/> Ez
Testuingurua:	<input checked="" type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Aribidean	<input type="checkbox"/> Ez
Errendimendua neurtzea:	<input checked="" type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Aribidean	<input type="checkbox"/> Ez

Inpaktu-azterketaren ondorioz, zer inpaktu-eremu nabarmen identifikatu dituzu zure bankuarentzat?

Klima-aldaketa arintzea, klima-aldaketara egokitzea, baliabideen eraginkortasuna eta ekonomia zirkularra, biodibertsitatea, finantza-osasuna eta -inklusioa, giza eskubideak, genero-berdintasuna, **enplegu duina**, ura, kutsadura, beste batzuk: etxebizitza **eskuratzeko aukera**.

Noizkoak dira inpaktu-azterketarako erabilitako eta bertan zabalduko datuak?

Argitaratu baino 12 hilabete lehenagokoak, gehienez.

⁵ «Bai» erantzun diezaiokezu galdera bati, baldin eta deskribatutako urratsetakoren bat bete baduzu; adibidez, hasierako inpaktu-azterketa egin bada edo pilotu bat egin bada.

2. printzipioa: **Inpaktua eta helburuak finkatzea**

2.2. Helburuak finkatzea (2. gako-urratsa)

Egiaztatu zure bankuak gutxienez bi helburu ezarri eta argitaratu dituela, inpaktu-azterketan identifikatutako arlorik esanguratsuenetik gutxienez bi jorratzeko.

Helburuek espezifikoak, neurgarriak (kualitatiboki edo kuantitatiboki), lorgarriak, egokiak eta iraupen jakinekoak (SMART) izan behar dute. Azaldu helburuak ezartzeko elementu hauek (a-d), helburu bakoitzerako bereizita:

- a) Lerrokatzea.** Zure bankuaren zorroa lerrokatzeko nazioarteko, eskualdeko edo nazioiko zein esparru politiko⁶ identifikatu duzu garrantzitsu gisa? Frogatu hautatutako adierazleak eta helburuak Garapen Jasangarrirako Helburu egokiei, Parisko Akordioaren helburuei eta nazioarteko, nazioiko edo eskualdeko beste esparru garrantzitsu batzuei lotuta eta haiekin lerrokatuta daudela, eta horiei ekarpen handiagoa egitea bultzatzen dutela.

Aurreko ekitaldian egindako azterketatik abiatuta, 3 helburu ezarri ziren, eta Jasangarritasunaren Aginte Taulan sartu. Helburu horiek:

- Gutxienez hiru hilean behin jorratzen dira Jasangarritasun Batzordean (Zuzendaritza Batzorde osoa du barne).
- Informazio ez-finantzarioaren egoera-orrian argitaratuko dira urtebeteko indarraldia betetakoan.

Honako hauek dira:

1. Gaztenpresak sortutako negozio-kopurua. Esan bezala, LABORAL Kutxak inpaktu positiboa du enplegu-sorkuntzan, enpresa txiki eta ertainei ematen dien finantzaketari esker. Gainera, inpaktu zuzena ere badu, Gaztenpresa fundazioa baitu, ekintzaileei beren negozioak martxan jartzen laguntzea eta aholku ematea helburu duena. 2022an, 314 enpresa sortu ziren Gaztenpresaren bidez; 2023rako, berriz, haren inpaktua handitu eta 400 enpresaren helburua ezarri zen. Helburu hori lerrokatuta dago Lan duina eta hazkunde ekonomikoa GJHarekin.

⁶ Zure bankuak kontuan hartu behar ditu lan egite duen herrialdeko/herrialdeetako garapen jasangarriaren arloko erronka eta lehentasun nagusiak, helburuak ezartze aldera. Horiek garapenerako plan eta estrategia nazionaletan, nazioarteko helburuetan —hala nola GJHetan edo Klimari buruzko Parisko Akordioan— edo eskualde-esparruetan aurki daitezke. Lerrokatzeak esan nahi du lotura argia egon behar dela bankuaren helburuen eta esparru eta lehentasun horien artean, eta, horretarako, argi geratu behar da helburuak nola babesten dituen eta egiten dizkien ekarpenak herrialdeko helburuei eta helburu globalei.

2. printzipioa: **Inpaktua eta helburuak finkatzea**

2.2. Helburuak finkatzea (2. gako-urratsa)

Bestalde, hipotekekin lotutako beste inpaktu positibo bat ikusi da. Ildo horretan, bi helburu zehaztu dira, zuzeneko inpaktu positibotik urrunago eramango gaituztenak eta hipoteken bidez gazte eta emakumeen segmentuei egiten diegun ekarpena erakutsiko digutenak.

- 35 urtetik beherakoei emandako hipoteka-saldoaren ehunekoa (%). 2022aren amaieran % 48,8koa zen ehuneko hori, eta 2023an % 50era iristeko helburua ezarri zen. Industria, Berrikuntza eta Azpiegitura GJHari eragiten dio.
- Emakumeei emandako hipoteka-saldoaren ehunekoa (%). 2022an % 47,7koa izan zen, eta aurten ere % 50era iristea da helburua. Zuzenean lotzen da Genero-berdintasuna GJHarekin.

b) Erreferentzia-oinarria. Zehaztu al duzu erreferentzia-oinarririk hautatutako adierazleentzat eta ebaluatu al duzu egungo lerrokatze-maila? Adierazi erabilitako adierazleak eta erreferentzia-oinarriaren urtea.

2.2. a) atalean adierazi da.

c) SMART helburuak, errendimenduaren funtsezko adierazleak (EFA) barne⁷. Adierazi lehen eta bigarren inpaktu-eremurik esanguratsuenetarako helburuak, martxan badaude (bai eta beste inpaktu-eremu batzuetarakoak ere, halakorik badago). Zer EFA ari zara erabiltzen helburuak betetzeko aurrerapenak neurtzeko?

2.2. a) atalean adierazi da.

d) Ekintza plana. Zer ekintza prestatu dituzu, mugariak barne, ezarritako helburuak lortzeko? Azal itzazu, mesedez.

Halaber, frogatu zure bankuak aintzat hartu dituela eta aztertu dituela (balizko) zeharkako inpaktu-eremu esanguratsuak finkatutako helburuei dagokienez, eta ekintza egokiak ezarri dituela balizko inpaktu negatiboak saihesteko, arintzeko edo konpentsatzeko.

LABORAL Kutxak 3 adierazleak eta dagozkien helburuak sartu ditu bere Jasangarritasunaren Aginte Taulan. Hainbat adierazle eta helburu biltzen dituen aginte-aula horri **jarraipena egiten zaio hiru hilean behin.** Datuak Jasangarritasun Bulegoak, Jasangarritasun Taldeak eta Jasangarritasun Batzordeak (erakundearen Zuzendaritza Batzorde osoa hartzen du barnean) berrikusten dituzte.

⁷ Errendimenduaren funtsezko adierazleak: bankuak bere helburuak lortzeko aurrerapenak kontrolatze aldera aukeratzen dituen adierazleak.

2. printzipioa: **Inpaktua eta helburuak finkatzea**

2.2. Helburuak finkatzea (2. gako-urratsa)

Autoebaluazioaren laburpena

Helburuak BAPen eskakizunei jarraikiz ezartzeko osagai hauetatik, zein bete ditu zure bankuak edo zein daude ebaluatze-fasean?

	Gaztenpresak sortutako negozio-kopurua	35 urtetik beherakoei emandako hipoteka-saldoaren ehunekoa (%)	Emakumeei emandako hipoteka-saldoaren ehunekoa (%)
Lerrokatzea	<input checked="" type="checkbox"/> Bai	<input checked="" type="checkbox"/> Bai	<input checked="" type="checkbox"/> Bai
Erreferentzia-oinarria	<input checked="" type="checkbox"/> Bai	<input checked="" type="checkbox"/> Bai	<input checked="" type="checkbox"/> Bai
SMART helburuak	<input checked="" type="checkbox"/> Bai	<input checked="" type="checkbox"/> Bai	<input checked="" type="checkbox"/> Bai
Ekintza plana	<input type="checkbox"/> Aribidean	<input type="checkbox"/> Aribidean	<input type="checkbox"/> Aribidean

2. printzipioa: **Inpaktua eta helburuak finkatzea**

2.3. Helburuen aplikazioa eta jarraipena (2. gako-urratsa)

Helburu bakoitza, bereizita:

Frogatu zure bankuak abiarazi dituela ezarritako helburua lortzeko aurrez zehaztutako ekintzak.

Eman zure bankuak azken txostenetik ezarritako helburuak lortzeko eginiko aurrerapenen berri eta adierazi zer inpaktu izan duten aurrerapen horiek. Erabili adierazleak eta EFAk 2.2 puntuan zehaztutako aurrerapena kontrolatzeko.

Edo, ezarpen-planetan aldaketarik izanez gero (2. txostenerako eta hurrengoetarako soilik da garrantzitsua): azaldu aldaketa posibleak (aldaketak lehentasunezko inpaktu-eremuetan, aldaketak adierazleetan, helburuen azelerazioa/berrikuspena, mugari berriak sartzea edo ekintza-planak berrikustea) eta zergatik izan diren beharrezkoak aldaketa horiek.

2022. urtearen amaieran helburuak finkatu izanak baldintzatu egiten du ekitaldi honetan hautatutako adierazleen ebaluazioa (txantiloia 2023ko bigarren hiruhilekoan bete da).

Hala ere, hiru hilean behingo jarraipenak (2023an zehar), Jasangarritasun Taldearen eta Jasangarritasun Batzordearen esparruan, berekin dakar azterketa egitea eta zuzentzeko neurriak hartzea, baldin eta helburuak betetzen ez badira edo desbideratze esanguratsuak gertatzen badira hurrengo hiruhilekoetan, baita hurrengo urteetako helburuak ezartzeari begira ere. Aurrekoa gorabehera:

Zentzua izeneko Gogoeta Estrategikoaren ondoren, erakundeak Gaztenpresaren aldeko apustua indartzea erabaki du (haren inpaktua areagotzeko).

Horrez gain, Jasangarritasunaren Aginte Taulan genero-helburuak sartu ondoren, erakundeak genero-berdintasunaren eremuan duen inpaktua hobetzeko azpiadierazleak aztertzen ari da Berdintasun Batzordea.

3. printzipioa: **Bezeroak**



Ardura osoz egingo dugu lan gure bezeroekin, jardunbide jasangarriak sustatzeko eta egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat oparotasun partekatua sortuko duten jarduera ekonomikoak ahalbidetzeko.

3.1. Bezeroekiko konpromisoa

Ba al du zure bankuak bezeroekiko konpromiso-politika edo -prozesuren bat⁸ jardunbide jasangarriak sustatzeko?

Bai Aribidean Ez

Ba al du zure bankuak politikaren bat inpaktu (potentzial) negatiborik handienak identifikatu dituzuen sektoreetarako?

Bai Aribidean Ez

Azaldu nola lan egin duen zure bankuak bezeroekin eta/edo nola lan egiteko asmoa duen, jardunbide jasangarriak sustatzeko eta jarduera ekonomiko jasangarriak ahalbidetzeko⁹. Honako hauei buruzko informazioa jaso beharko litzateke: politika garrantzitsuak, bezeroei trantsizioan laguntzeko planifikatutako/abiarazitako ekintzak, bezeroen konpromisoari buruzko adierazle hautatuak eta, ahal denean, lortutako inpaktuak.

⁸ Hauxe da bezeroekiko konpromiso-prozesu bat: bezeroei beren negozio-ereduak jasangarritasun-helburuekin lerrotzeko trantsizioa egiten laguntzen dien prozesu bat; horretarako, bezeroekiko harremanetarako hainbat kanalen bidez ematen zaie laguntza estrategikoa.

⁹ Jarduera ekonomiko jasagarriek karbono-isurpen txikiko eta baliabideen erabilera efizienteagoa egiten duen ekonomia jasagarriago bateranzko trantsizioa sustatzen dute.

3. printzipioa: **Bezeroak**

3.1. Bezeroekiko konpromisoa

Lehen aipatu bezala, 2022an **finantzaketa iraunkorreko esparru** bat eratu da, eta **jasangarritasun-ezaugarriak dituzten** produktuen katalogo batean lan egin da, bai **finantzaketaren** esparruan, bai aholkatutako **inbertsio-funtsen** esparruan. Produktu horiek garatzea da gure bezeroen jarduera jasangarriak sustatzeko modurik onena. Finantzaketa jasangarriaren esparrua garatzeko egindako lanaren barruan, ESG alderdiak biltzen dituen galdetegi bat diseinatu da —2023an jarri da abian—. Kudeatzaileek bete behar dute diru-kopuru batetik gorako finantzaketa-eragiketak aurkezterakoan.

Gainera, inbertsioei buruzko aholkularitzaren galdetegietan galderak sartu dira, bezeroek jasangarritasunarekiko dituzten jarrerak ezagutzeko. 2022an simulagailu bat abiarazi da bezeroek kostuak eta laguntzak kalkulatu ahal izan ditzaten, etxebizitzaren energia-berrikuntzari ekitea erabakitzen den kasurako.

Aukeratutako **adierazleei** dagokienez, **Jasangarritasunaren Aginte Tailaren** barruan, **finantzaketa jasangarriaren esparrua osatzen duten ingurumen- eta gizarte-partiden eta lehen aipatutako finantzaketa-produktu jasangarrien jarraipena** egiten da, horien bilakaera ikusteko.

Finantzaketa, produktu eta inbertsio-funts horien bidez, LABORAL Kutxak **ekonomiari eta gizarteari lotutako inpaktu positiboak areagotu** egin nahi ditu, eta **ingurumenari lotutako inpaktu negatiboak murriztu**.

3.2. Negozio-aukerak

Azaldu zer negozio-aukera estrategiko identifikatu dituzun zure bankuan inpaktu positiboak areagotzeari eta inpaktu negatiboak murrizteari dagokionez, eta/edo nola lan egin duzun horietan txostenak barne hartzen duen aldian. Eman informazioa dauden produktu eta zerbitzuei buruz, garatutako produktu jasangarriei buruz (balioari dagokionez, USDtan edo tokiko dirutan) eta/edo zorroaren ehuneko gisa, eta zer GJH edo inpaktu-eremutan saiatzen ari zaren inpaktu positiboak eragiten (adibidez, hipoteka berdeak, klima, gizarte-bonuak, finantza-inklusioa eta abar).

2022an produktu berdeen katalogo bat jarri da abian, datozen urteetan zabalduko dena eta zorro osoa hartzen duena: finantzaketa, inbertsioa eta aseguruak.

*2022ko Jasangarritasun
Txostena.*
47-51 or.

4. printzipioa: **Alderdi interesdunak**



Alderdi interesdun garrantzitsuekin hitz egingo dugu, konpromisoak ezarriko ditugu eta elkartuko gara, gizartearen helburuak lortzeko.

4.1. Alderdi interesdunak identifikatzea eta kontsultatzea

Ba al du zure bankuak prozesuren bat alderdi interesdunak (edo alderdi interesdunen taldeak¹⁰) identifikatzeko, kontsultatzeke, inplikatzeko eta haiekin lankidetzan aritzeko eta elkartzeko?

Bai

Aribidean

Ez

Azaldu zer alderdi interesdun (edo alderdi interesdunen talde/mota) identifikatu, kontsultatu edo inplikatu duzun, edo zer alderdi interesdunekin aritu zaren lankidetzan edo elkartu zaren, Printzipiook aplikatzeko eta zure bankuaren inpaktuak hobetzeko. Horren barruan goi-mailako deskribapen orokor bat sartu behar da, azalduz nola identifikatu dituen zure bankuak alderdi interesdun esanguratsuak, zer gai landu diren edo zer emaitza lortu diren eta nola xertatu diren ekintza-planean.

Jasangarritasun Txostena egiteko, zenbait interes-talde daude identifikatuta, eta haiekin elkarrizketak izateko mekanismoak ezarrita.

Negoioari eta jasangarritasunari buruzko alderdiak ere hartzen dituzte aintzat. Materialtasuna aztertzeke, txostenaren laburpena bidali zitzaizen 300.000tik gora bezero, hornitzaile, langile eta kooperatibistari. Ia 2.100 erantzun jaso dira.

Plantillakoa da interes-talde bereziki garrantzitsu bat. LABORAL Kutxako plantilla bankuaren bazkidea eta jabea da; beraz, komunikazio-kanal ugari daude eta erabakietan parte hartzen da.

2022an martxan jarri dugun materialtasun-analisan materialtasun bikoitza hartu dugu kontuan, lehenagotik alderdi interesdunekin egiten zen materialtasun-matritzetik haratago.

Bezerekin komunikatzeko kanal ugari daude, haien iritziak, interesak eta lehentasunak ezagutzeko, baita jasangarritasunari dagokionez ere.

2022ko Jasangarritasun Txostena.
32. or.

¹⁰ Hala nola arautzaileak, inbertitzaileak, gobernuak, hornitzaileak, bezeroak, erakunde akademikoak, gizarte zibileko erakundeak, komunitateak, indigenen ordezkariak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

5. printzipioa: **Gobernantza eta kultura**



Printzipio hauekiko konpromisoa praktikan jarriko dugu, gobernantza eraginkorraren eta banku-jarduera arduratsuaren kulturaren bidez.

5.1. Printzipioak ezartzeko gobernu-egitura

Ba al du zure bankuak BAPak barne hartzen dituen gobernantza-sistematik?

Bai

Aribidean

Ez

Azaldu zure bankuak ezarri dituen/ezarri nahi dituen gobernu-egitura, politika eta prozedura nabarmenak, inpaktu (potentzial) positibo eta negatibo esanguratsuak kudeatzeko eta Printzipioak eraginkortasunez aplikatzen laguntzeko. Datu hauek biltzen ditu:

- Zer batzordek duen jasangarritasun-estrategiaren, helburuak onartzearen eta jarraipena egitearen gaineko erantzukizuna (BAPek ezartzen duten gobernantza-maila gorenari buruzko informazioa barne).
- Batzordearen presidenteari eta prozesuari buruzko xehetasunak, eta kontseiluak zer maiztasunarekin gainbegiratzen duen ezarpena (neurri zuzentzaileak barne, helburuak edo mugarrak lortzen ez badira edo ustekabeko inpaktu negatiboak detektatzen badira).
- Jasangarritasun-helburuei lotutako ordainsari-praktikak.

2022an, Taldearen jasangarritasun-gobernantza onartu eta hedatu da, eta BAPak dira haren iturri nagusietako bat.

Gobernantza hori Jasangarritasun Politikan, TCFDn eta Jasangarritasun Txostenean deskribatu da, eta organo hauetan laburbil daiteke:

- Kontseilu Errektorea: erakundearen administrazio-organo gorena da. Gutxienez hiru hilean behin egiten du jasangarritasunaren arloan abian jarritako ekimenen jarraipena.

***LABORAL Kutxa Taldearen
Jasangarritasun Politika.***
13. or.
TCFD

5. printzipioa: **Gobernantza eta kultura**

5.1. Printzipioak ezartzeko gobernu-egitura

- Jasangarritasun Batzordea: Zuzendaritza Kontseiluak eta Jasangarritasun Bulegoko kideek osatzen dute. Batzorde hori arduratuko da Kontseilu Errektoreak zehaztutako estrategia eta gestio-planak gauzatzeko direla bermatzeaz. Horretarako, martxan dauden ekintzen jarraipena egin, eta behar diren neurriak hartuko ditu, estrategian finantza jasangarriei dagokienez zehaztutako posizionamendura egokitu dadin entitatea.
- Jasangarritasun Taldea: planteatu diren ekintzak gauzatzeko ardura duten sailtako arduradunek osatzen dute.
- Jasangarritasun Bulegoa: ekimenak koordinatzen eta bultzatzen ditu.

***LABORAL Kutxa Taldearen
Jasangarritasun Politika.***
13. or.
TCFD

5.2. Banku-jarduera arduratsuaren kultura sustatzea

Azaldu zein diren zure bankuaren ekimenak eta neurriak langileen artean banku-jarduera arduratsuaren kultura sustatzeko (adibidez, gaitasunak garatzea, onlineko ikaskuntza, jasangarritasunaren inguruko trebakuntza bezeroekin loturiko funtzioak dituztenentzat, ordainsari-egituretan sartzeko eta errendimenduaren kudeaketa eta lidergo-komunikazioa, besteak beste).

5. printzipioa: **Gobernantza eta kultura**

5.2. Banku-jarduera arduratsuaren kultura sustatzea

Kreditu-kooperatiba da LABORAL Kutxa; beraz, langileak enpresaren jabe dira eta demokratikoki esku hartzen dute erakundearen kudeaketan eta erabakietan. Gizarte-ekonomia da gure banka kooperatiboa, eta banku-jarduera arduratsuaren kultura erabiltzen dugu gure funtzionamenduan. Azken urtean hainbat prestakuntza- eta komunikazio-ekintza egin dira banku-jarduera arduratsuaren kultura ezartzeko bidean aurrera egiteko, hala nola:

Prestakuntza, hauentzat:

- Kontseilu Errektorea: jasangarritasun-arriskuei buruzko prestakuntza berezia.
- Zuzendaritza Batzordea eta departamentuetako zuzendaritzak.
- Pertsona guztiak: finantza-sektoreko jasangarritasunari eta horren inpaktuari buruzko oinarritzko ikuspegia.
Barne-prestakuntza orokorra: Jasangarritasun Bulegoa.
Kanpo-prestakuntza: MiFID (5 ordukoa).
Zerbitzu Zentraletako taldeentzako prestakuntza espezifikoa: arriskuak, enpresa-sarea (15 ordu).

Komunikazioaren ikuspegitik:

- Kooperatiba-balioekin lotutako LKren jasangarritasun-kontakizuna eraikitzeke hausnarketa, 2023an osatua.
- Jasangarritasunaren arloan —ingurumen-aldagaia barne— izandako aurrerapenen barne-zabalpena.
- Jasangarritasunean egindako aurrerapenen kanpo-komunikazioa sendotzea, baita sentsibilizazio-ekintzak ere; esaterako, urteko egutegia.
- Jasangarritasunaren Aginte Taulan, komunikazio horien kopurua neurtzen duen adierazle bat ezarri da.

2022an jasangarritasun-helburuak ezarri dira kooperatibako mailarik handieneko ordainsari aldakorren barruan. 2023an, helburu horiek LABORAL Kutxako pertsona guztiengana iritsi dira.

5. printzipioa: **Gobernantza eta kultura**

5.3. Arreta egokiko politikak eta prozesuak

Ba al du zure bankuak zorroari lotutako ingurumen- eta gizarte-arriskuei aurre egiteko politikarik?¹¹ Azal itzazu, mesedez.

Azaldu zure bankuak zer arreta-prozesu ezarri dituen zure zorroari lotutako ingurumen- eta gizarte-arriskuak identifikatu eta kudeatzeko. Horrek barnean har ditzake, besteak beste, arrisku esanguratsuak/nabarmenak identifikatzea, ingurumen- eta gizarte-arriskuak arintzea eta ekintza-planak definitzea, arriskuen jarraipena egitea eta haien eta edozein bidegabekeria-mekanismoren berri ematea, bai eta arrisku horiek kontrolatzeko ezarri diren gobernantza-egiturak ere.

Gaur egun, jasangarritasunaren gobernantzak zenbait maila ditu, eta horiek jasangarritasun-helburuen ezarpenean —Printzipioak barne— aurrera egiteko helburuak ezartzea bermatzen dute. Era berean, aldizka, helburu horiek lortzeko bidean egindako aurrerapenen jarraipena eta kontrola egiten dira.

Lehendik ere azaldu dugunez, Plan Estrategikoan eta Gestio Planean txertatu dira Printzipioak, eta Gestio Planari jarraipena egiten zaio.

Jarduerak ingurumenean duen inpaktu zuzenari dagokionez, LABORAL Kutxak duela 20 urte baino gehiagotik dauka AENOREk urtero ikuskatzen duen UNE EN ISO 14001 ingurumen-ziurtagiria.

Urtearen bigarren erdian, finantzaketa-zorroaren elementu nagusien (hipotekak eta merkataritza) arriskuak aztertu dira, batez ere ingurumenari lotutakoak, baina baita gizarteari lotutakoak ere. Merkataritza-finantzaketaren kasuan, jarduera-sektoreen arabera segmentatu da, arrisku guztiak aintzat hartuta, bai zuzenekoak bai trantsiziokoak, eta arrisku handieneko sektoreak identifikatzeko aukera ematen duen bero-mapa bat lortu da, arriskuen jarraipen egokia egin ahal izateko. Lan horren emaitzak Arriskuen Batzordeari aurkeztu zitzaizkion eta Kapitalaren eta Likideziaren Autoebaluazio Txostenean (KLATan) sartu dira.

TCFD.
LABORAL Kutxa Taldearen
Jasangarritasun Arriskuak
Integratzeko Politika (ESG)

¹¹ Hona hemen politika-mota horien adibide aplikagarriak: sektore/jarduera jakin batzuetarako bazterketa-politikak, zero deforestazioko politikak, zero tolerantziako politikak, generoarekin lotutako politikak, bidezko eginbide sozialeko politikak, alderdi interesdunak inplikatzeko politikak, irregulartasunak salatzen dituzten politikak eta abar, edo gizarte-arriskuekin lotutako gidalerro nazionalak.

5. printzipioa: **Gobernantza eta kultura**

5.3. Arreta egokiko politikak eta prozesuak

Autoebaluazioaren laburpena

Kontrolatzen al du zuzendari exekutiboak edo goi-mailako beste zuzendariren batek noizbehinka Printzipioen aplikazioa, bankuaren gobernu-sistemaren bidez?

Bai

Ez

Ba al du gobernantza-sistemak BAPak gainbegiratzeko egiturarik (adibidez, inpaktu-azterketa eta helburuen ezarpena; helburu horiek lortzeko ekintzak eta neurri zuzentzaileen prozesuak, helburuak/mugarriak lortzen ez badira edo ustekabeko inpaktu negatiboak detektatzen badira)?

Bai

Ez

Jarri al du zure bankuak neurririk martxan langileen artean jasagarritasunaren kultura sustatzeko (5.2 atalean azaltzen den bezala)?

Bai

Aribidean

Ez

6. printzipioa: Gardentasuna eta erantzukizuna



Aldian-aldian, Printzipio hauen aplikazio indibiduala eta kolektiboa berrikusiko dugu, eta gardenak eta arduratsuak izango gara gure inpaktu positibo eta negatiboei dagokienez eta gizartearen helburuei egiten diegun ekarpenei dagokienez.

6.1. Bermea

Bermatu al du aseguratzaile independente batek zure BAP konpromisoei buruz publikoki azaldutako informazio hau?

Bai Partzialki Ez

Dagokionean, sartu berme-adierazpenaren esteka edo deskribapena.

Dokumentu honetan jasotako informazioa Metroeconomicak egiaztatu du: <https://www.metroeconomica.com/en/home/>.
Era berean, aipatzen den Jasangarritasun Txostena askotan egiaztatu du AENOREk.

6.2. Beste esparru batzuetan informatzea

Ematen al du zure bankuak jasangarritasunari buruzko informazioa jarraian zerrendatzen direnetako estandar eta esparruren batean?

GRI TCFD

LABORAL Kutxaren Jasangarritasun Txostena urtero egiten da, GRI estandarren argibideei jarraituz.
2022an, bigarren txostena egin da, TCFDren gomendioen arabera.

[2022ko Jasangarritasun Txostena.](#)
[TCFD](#)

6. printzipioa: **Gardentasuna eta erantzukizuna**

6.3. Aurreikuspena

Zer urrats emango ditu zure bankuak hurrengo 12 hilabeteetako informazio-aldian (batez ere inpaktu-azterketari¹², helburuak finkatzeari¹³ eta BAPak aplikatzeko gobernu-egiturari dagokienez)? Mesedez, azaldu labur-labur.

Dokumentu honetan BAPen ezarpenean egindako aurrerapenak deskribatu dira, baita neurketan, inpaktuan, produktuen katalogoan, helburuen ezarpenean eta jarraipenean abian dauden ekintzak ere.

LABORAL Kutxak inpaktuen azterketatik abiatuta ezarritako 3 helburuak monitorizatzen jarraituko du, eta, helburu horiek lortzen ez badira, beharrezkoak diren ekintza zuzentzaileak ezarriko ditu.

ESG arriskuei buruzko 3 adierazle ezarri dira Arriskuarekiko Grinaren Esparruan. Arriskuen integrazioaren esparru horretan, 2023an beste TCFD txosten bat egingo da.

Gestio Planaren eta Jasangarritasunaren Aginte Taularen barruan, badira hiru hilean behin jarraipena egiten zaien EFAk.

2023ko bigarren erdian, zorroaren karbono-aztarna murrizteko helburuak ezartzen egingo da lan.

Estrategiari dagokionez, epe ertainerako jasangarritasuneko gida-plan bat diseinatuko da.

Era berean, BAPen hurrengo jarraipen-txostenari begira, inpaktuen beste azterketa bat egingo da, eta, emaitzen arabera, helburuak aldatu edo berriak gehitu ahal izango dira.

¹² Adibidez, irismena handitzeko (oraindik bete ez diren arloak sartuta) planen zirriborroa egitea, edo aurreikusitako urratsak zorroaren osaerari, testuinguruari eta errendimendua neurtzeari dagokienez.

¹³ Adibidez, erreferentzia-oinarria neurtzeko planen zirriborroa egitea, inpaktu-eremu gehiagotarako helburuak garatzea, behin-behineko helburuak ezartzea, ekintza-planak garatzea eta abar.

6. printzipioa: **Gardentasuna eta erantzukizuna**

6.4. Erronkak

Hona hemen zure bankuak Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak aplikatzeko garaiak aurkitzen dituen erronkak zein diren jakiteko atal labur bat. Zure iruzkinak baliagarriak izango dira BAPEi lotu zaizkien bankuen aurrerapen kolektiboa testuinguruan kokatzeko.

Zer erronka lehenetsi dituzu Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak aplikatzeko orduan? Aukeratu zure ustez zure bankuak azken 12 hilabeteetan lehentasunezkoztat jo dituen hiru erronka nagusiak (aukerako galdera).

Nahi baduzu, xehetasun gehiago eman ditzakezu erronkei eta horiei heltzeko baliatu duzun moduari buruz:

Errendimendua neurtzeko metodologia/k egokia/k aukeratzea

Datuen eskuragarritasuna

Datuen kalitatea



Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak egiaztatzeko adierazpena

Metroeconomica SLren Egiaztapen Adierazpena

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITOrentzat,

Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioen Reporting and Self-Assessment Template 2023 txostenaren gainean eta NBIP Nazio Batuen Ingurumen Programaren eskakizunei jarraikiz egina.

En Bilbao a 3 de julio de 2023

30674457R
IBON
GALARRAGA (R:
B95888400)

Firmado digitalmente
por 30674457R IBON
GALARRAGA (R:
B95888400)
Fecha: 2023.07.03
14:12:51 +02'00'

Ibon Galarraga Gallastegui,

CEO, PhD, Partner and Director

